

OROTARIKO ZAHARBERRITZEAK

Etxebizitzen barruan hainbat zaharberritze egiten dira, bai mantenu lanetarako edo baita bertako guneen eraldaketarako ere.

Askotan, etxebizitza zaharren erosle berriek, aldaketak eta birbanaketak aurrekiusten dituzte beraien beharretara eta gustura egokitzeko. Garrantzitsua da, tekniko profesionalen esku egotea zer eta nola egin konstruktibotik eta erabilgarritasun aldetik egokia izan dadin.



Aurreko lerroetakoaren haritik tiraka, gaur egun ere, lokal komertzialak etxebizitzan bihurtzearen behar hori sortu da. Lokal hauen erabilera aldaketa bat ematen ari da, bizimodua aldatzen ari delako, beharrak aldatzen ari direlako eta ohikoa bihurtzen ari da lehen bulego edo biltegia zen espazio bat, gaur egun etxebizitza bihurtzea.

Kontutan hartu beharrekoa da, aldaketa hauek ere, askotan instalakuntzen berritzea eskatzen dutela. Instalakuntza hauek, gaur egungo araudia bete behar dutela kontutan hartu behar da.

Bukatzeko, aurreko hamarkadetan eraiki diren etxebizitzaren egiturak sendotzea, atal garrantzitsu bat dela iruditzen zaigu. Hormigoi armatuak, hainbat urtetan frogatu du, edonolako eskakizunei erantzun bikaina ematen diela. Askotan, aurrekiusten zena baina gehiago.

Gaur egun, egituraren azterketa zehatz baten ondoren eta puntako teknologiadun material eta herramintekin, obra asko aurrera atera daitezke, bestela aterako ez liratekeenak.